

# MADISONGO ZUBIETAN BEZALA

Marc Egea

Eusk: Ele txera

**CAROLINAK** eta **MARIOk** 4 urte daramatzate elkarrekin bizitzen. Gauzak, jada, ez dira lehen bezala.

**CAROLINA:** Ez diat eskatzen autoa aldatzeko; ondo zagok zaukaaguna, tira, berdin zaidak. Semaforoaren eszenan... Eszena horretan -azalduko diat-, Francesca senarrarekin autoz zoak eta bidegurutze batera iristen dituk. Semaforoa gorri zagok. Euria ari dik. Ez ditek hitz egiten, keinukariaren tikitaka bakarrik entzuten duk, haizetakoen astindua. Semaforoa berde jartzen duk. Aurreko autoak ez dituk abiarazten -aurreko autoa ez duk abiarazten -. Senarra kexu duk: "Baina, zeren zain hago?" Francescak ez dik ezer esaten. Isilik, eskua atearen heldulekura eraman dik korrika atera nahi dik eta. Aurrean zagoan auto horretan sartu nahi dik. Eta ez duk kotxetaz ari, laztana. Ari duk... Ez dakik zertaz ari nauan. Horretaz ari duk, hain zuzen ere. Ez duk film handia -ezta eleberri bikaina ere-, lasai. Ez huen ezer galdu. Izan ere... gogoratzen diat bakarrik geratu ninduala ikusten, aretoan, hainbestetan bezala... Horretaz ari nauk, filmak ikusten bakarrik egoteaz. Zergatik ez ditiagu filmak elkarrekin ikusten? Noiz utziko genioan egiteari? Jarraitu izan bagenu, jakingo huke zein eszenaz ari nauan. Jakingo huke zer esan nahi diadan. Eta, ziurrenik, ni ez nindukek Francesca bezala egongo, orain, eskua atearen heldulekuan...

Ele txera  
Hondoludek zabaldiaz



**OHARRAK:** "Los Puente de Madison" filmaren funtsezko eszenan, Francesca protagonista bere buruarekin borrokan dago, semaforo baten etenaldian: lasterka atera eta aurreko furgonetan igo, Robert maitaleak zain dagoen horretan edo senarrarekin egon. Azkenik, azkeneko aukera aukeratzen du.

Bakarrizketa honetan, protagonistak, **CAROLINAK**, lau urte daramatza ezkondu, eta bere ezkondu biziak jada txinpartarik ez duela nabaritzen du, Francescaren moduan "Los puentes de Madison County" fikzioan bezala. **CAROLINA**ren senarrak, **MARIOk**, ez du lehengo samurtasuna adierazten, eta ez du interesik azaltzen dena harekin partekatzeke. Azken adibidea bera ari da azaltzen. Beste gauean, "Los Puente de Madison" elkarrekin ikusten hasi ziren, eta, berehala, berak ez zion jaramonik egiten, eta egongelan bakarrik utzi zuen telebistaren aurrean.

# MADISONGO ZUBIETAN BEZALA

Marc Egea

Eusk: Ele txera

**CAROLINA**k **MARIO**ri esan nahi dio Francescaren pertsonaian islatu dela. Eta **MARIO**k zertaz ari den ez jakiteak -beste gauza batzuk egitera joan zelako- bere sentrazioa berresten du. Horrek eragiten dion tristuragatik mugitzen da **CAROLINA**, eta **MARIO**ri ere esan dio, antzeko egoeran egonez gero, berak irekiko lukeela atea eta korrika egingo lukeela aurreko furgonetarantz; hau da, pentsatzen hasi da agian harremana amaitu nahi duela. Eta **MARIO**k entzun egiten du, baieztatuz eta ulertu gabe.

Ele txera  
Munduko zabalduz

